

# noaua

**Maiatzaren 7koari begira,  
Berme eta Jarraipen  
Batzordeak osatu dira**

**Martxan da Zubietako  
hondakin-uren  
ponpalekua**

## **Korrikako zoro zoragarriak**



# PSU

serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



## FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

### AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

·GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ  
KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:

- HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

(IZAPIDE GUZTIAK EGITEN DITUGU: OSASUN SAILEKO BAIMENAK,  
UDALA, ERREGISTRO ZIBILA, OSASUN-GARRAIOA ERRAUTS-LABERA  
EDO BESTE HILERRI BATERA...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

## 943 36 21 63 (24H)

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE



· BEILATOKI GUZTIAK - ERRAUSKETAK

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HIRIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

### IZATEKO GOZATZEKO GUNE BAT UNE BAT

MAXA dortokaren abenturak

**8 txanda aukeran...**  
6 egun piraten altxorra aurkitzeko,  
Kantauri itsasotik nabigatzeko,  
piraten ibilbide zirrargarriak ezagutzeko,  
hondartza eta igerilekura joateko,  
abenturak irrati uhinetatik hedatzeko...

**NON**  
Arrokaundieta aterpetxean  
Pasai Donibanen  
(Gipuzkoan)

**NORENTZAT**  
2005 eta 2010 artean  
jaiotako haurrentzat

**PREZIOA**  
260 euro

**INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:**  
[www.urtxintxa.eus](http://www.urtxintxa.eus)  
943270033

## Kruzeroa taldean

Lasartetik irteera  
+  
Noaoren laguntzarekin

Baltikoko hiriburuetatik

## Kruzeroa

**Azken 2 Kamaroteak**

Taldeko agentzia

943 373 613 | [info@noaoo.eus](mailto:info@noaoo.eus) | [www.noaoo.eus](http://www.noaoo.eus)  
Hipodromo Etorbidea 10, 2016 Lasarte - Oria

## Albiste iruditzen

# Haur Koruen Tailerrean

Soinurbil bukatu zen, baina Zumarte Musika Eskolako irakasleek eta ikasleek betiko martxan jarraitzen dute. Argazkia pasa den asteburukoa da. Zumarte Abesbatzako kideak dira bertan ageri direnak. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako Haur Koruen XI. Tailerrean hartu zuten parte. Isiltasunak musikan duen garrantziaz aritu ziren, besteak beste.

Isiltasuna baliabide garrantzitsua da. Horri buruz jardun zuten tailerrean. Ikasleek Elena Rosso eta David Azurza zuzendarien azalpenak ere jaso zituzten. Ikasitakoa zuzenean eskaini zuten ondoren. Hondarribiko Amute auzoko Kaputxinoen elizan kontzertua eskaini zuten igandean.



Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako Haur Koruen XI. Tailerrean hartu dute parte.

### Talde instrumentalen kontzertua

Zumarteko talde instrumentalak ostegun honetan Beasainera joango dira trukake-

ta kontzertua egitera. Kontzertua Igar-tza Jauregian izango da arratsaldeko 19:00etan.

## Laburrean

### Datozen bi asteetan ez da NOAUA!rik argitaratuko

Eskutan duzuen 695. astekaria hau duzue momentuz azkena. Apirilaren 14 eta 21eko asteetan ez da aldizkaririk izango. Hurrengo zenbakia beraz, apirilaren 28an jasoko duzue.

### 'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroa

Apirilaren 22an, 09:00-13:00 artean Potoxoenean; "ilargia eta egutegi biodinamiko", Xabier Akizuren eskutik. Izena aurrez emateko: 943 361 114 [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

### Euskarazko literatura topaketa

Apirilaren 26an Miren Gorrotxategiren "33 ezkil" eleberria aztertuko da 19:00etan Sutegei udal liburutegian Pako Aristik bideratuko duen saioan. "Liburuaren ale ezberdinak liburutegian daude eskuragarri.

# noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaUA.eu](mailto:elkartea@noaUA.eu) // [www.noaUA.eu](http://www.noaUA.eu)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

[publizitatea@noaUA.eu](mailto:publizitatea@noaUA.eu)

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noaUA.eu](mailto:erredakzioa@noaUA.eu):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Garazi Lizaso Manterola

## Lana vs enplegua (eta II)

**A**urreko testuan aipatu-takoa, eguneroko ogia dugu eta arreta pixka bat ipiniz gero, segituan kontratutako gara. “Emakumea behar da orduka haurrak/hel-duak zaintzeko eta etxea garbitzeko” zenbatetan irakurri ote dugu eta hurrengo iragar-kira salto egin, zeina “gizon bat behar da...” esaldiarekin hasten den. Lan ezberdinak, baldintza ezberdinak, banaketa sexualari erantzuten diotenak.

Gehitu horri lan elkarrizketa batetara joan eta, bereziki, 30 urte inguruko emakumeoi ea bikotekidea (gizonezkoa, noski, bestelakorik kostata sartzen baitzaigu buruan) dugun, batera bizi garen eta etorkizunari begira “zer asmo” dugun

galdetzen digutela. Horren guz-tiaren atzean, enpresaburuak ea amatasun baja izango duen ala ez jakin nahi du. Ondorioz, kontratatuko zaitu ala ez.

Puntu horretan ere burua martxan hasten zait eta ezin gelditu: zer pasatuko litzate-ke hemen (Norwegian eta ipar-raldeko herrialdeetan beza-la) amatasun bajaren iraupen berbera izango balu aitatasun bajak? Eta, jakina, hori beste-renezina (gaztelaniazko “in-transferible” delakoa) izan eta, hortaz, aita legez hartzera behartuta egongo balitz?

Ziurrenik seme-alaben zain-tza orekatuagoa izango litza-teke eta ez lirateke hainbat diskriminazio egoera sortuko emakumeak kontratatzerako orduan. Neurri horiek har dai-

tezke eta eskubide behar luke-te. Baina zer pasatuko litzateke doako eta beharrezko eskulana-rekin?

Pasa den asteko testuan esan nuen bezala, martxoaren 8a pasa zaigu eta leku batean baino gehiagotan irakurri dugu “egunero da martxoak 8”. Efe-merideetan bakarrik ohartzen gara, baina egunerokotasunean jardun behar dugu, baldin eta benetan iritsi nahi badugu jendarte justuago eta parekide ba-tera.

Horrexegatik, bada garaia etxean “zer egingo dizut?”, eros-keta zerrenda osatzerakoan “zer behar duzu?” edota lagunar-tean “etxean laguntzen dizut/diot” esateari uztekoa. Ez diogu laguntzen, horiek ere gure ar-duren parte dira. Erantzukizun

bera dugu, hortik erantzunki-detasun kontzeptua.

Beraz, martxotik harago badugu non jardun. Hasi egu-nerokoak eta ezinbestekoak diren lanak aitortzetik, es-kertzetik eta banatzetik eta, besteak beste, jarraitu lan-tokietako lan hitzarmeneta zentzu horretan aldaketak erraztu ditzaketen pausuak ematen. Hala nola, lan bera-gatik soldata berdina eskatu, kontziliazio neurriak (enple-gua eta bestelako kargak eta ardurak uztartzen lagun-tzen digutenak) martxan jarri edota baimenen arloan fami-lia odolkidetik senidetasun soziala aldarrikatzekoa, zain-tza lanen kudeaketa justua-goia izan dadin.

Bitzita duinak guztiontzat!

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | **Garazi Lizaso Manterola** | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Luken Arkarazo

### Ika-Mika

## Hitzez, borondatez eta ekintzez; Usurbilek bere bidea

**A**stehenean sinatu zu-ten erraustegia eraiki-tzeko lanen kontratua. Edonondik begiratuta ere, albiste txarra da. Zentzu eta bi-hotz oneko inor ez da poztuko sinatze horrekin, egin nahi du-tena kalterako baita, osasuna-ri, ingurumenari eta ekonomia-ri dago kienez.

Esan dezagun garbi: erraus-tegi hau Gipuzkoako herrita-rran gehiengoaren boronda-tearen aurka egin nahi dute, eta ez hori bakarrik, baita Eu-ropatik datozen zuzentaru-aren aurka ere. Erraustegi honek ez du herrialde ikuspeirik, ez

ingurumenarekiko errespeturik-izenarekin poesia egin arren, ez eta herritarren nahi eta bo-rondatearekiko sentsibilitaterik ere. Erraustegia enpresa pribatu-aren interesei erantzuteko eraiki nahi da, gipuzkoarreiki bizkar eman ez eta opakotasun osoz. Elite ekonomikoaren interesak lehenetsi dira, herritar xeheon kaltetan.

Ondoan inork nahi ez duen azpiegitura hori, etxe ondo-ra ekarri nahi digute. Azken hamar urteetan Usurbilek hit-zez, borondatez eta praktikan erakutsi du erraustegiaren aur-kako jarrera. Hainbat agerraldi

publikotan, erresistentzia juri-dikoarekin, galdeketen bidez (parte hartu zutenen %97,9k esan zuen ez zuela erraustegi-rik nahi), baina, batez ere, egu-nez egun alternatibak garatzen eta hondakinen kudeaketa ho-betzen aritu gara. Eredugarria izan da, eta da, Usurbilgo her-ritarren jokabidea.

Usurbilgo EHBilduk ere ja-rriera irmoa du erraustegiaren aurka, eta halaxe agertu dugu ordezkari-tza dugun foro guz-tietan eta baita alternatiba garatzean ere, Usurbil 0.0 be-zalako ekimenak abiaraziz eta konpartituz. Ez diogu ez sosik

ez hondakinik opa erraustegia-ri.

Duela hamar urte bide bati hasiera eman genion: murriz-keta, berrerabilera eta bir-ziklapena ziren bide horren gakoak. Bidean jarraitzen dugu oztopoak oztopo eta amarruak amarru. Okertu egin ginela esan nahi digute asteleheneko sinatzearekin, baina jakin ba-dakigu bide onean goazela. Eta ez dugu etsiko.

Denborak bakoitza bere le-kuan jartzen du.

**Usurbilgo EH Bildu**

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: apirilak 28. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 24.

# Sinatua, erraustegiko lanen kontratua

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietako erraustegia eraiki eta kudeatzeko lanen esleipen kontratua sinatu zuen astelehenean, Meridiam Investments, Altuna y Uria, Moyua, Murias eta LKS Ingeniería enpresa taldearekin. Kontratua sinatuta, ahalik eta lasterren lanei ekiteko borondatea azaldu du Aldundiak. Zubietako erraustegia, 2019ko udazkenerako martxan egotea aurreikusten du Diputazioak.

## FCRen errekurtoa atzera bota ondoren

Kontratazio Errekurtsoen Foru Auzitegiak FCC-k esleipen prozesuaren aurka aurkezturiko errekurtoa martxoaren 30ean atzera bota eta egun gutxira sinatu dute akordioa, eraikitze lanei ere ahalik eta lasterren ekiteko. Gogoan izan, FCC-k errekurto hau aurkeztu zuenetik esleipen prozesua suspentsoan zegoela.

## SWAPen aurkako errekurtsorik ez

2011n bankuekin sinatu ziren SWAPak ordaintzea agintzen duen Gipuzkoako Auzitegiko epaiari helegiterik ez aurkezte erabaki zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak (GHK) martxoaren 31n egin zuen ezohiko eta urgentziazko batzarrean. Bezperan, EHBilduk eta Podemos Ahal Duguk epai hau errekurritzeko eskae-



Astelehenean sinatu zen kontratua. Ahalik eta lasterren lanei ekiteko borondatea azaldu du Foru Aldundiak.

ra aurkeztu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Bistan denez, GHK-k ez du aintzakotzat hartu.

## “Hitza hartu”, parte hartze prozesua

2017-2030 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Integralari begira, Foru Aldundiak 2016ko ekainean gai honen inguruko parte hartze prozesua iragarri zuen arren, gerora ez du gauzatu. Diputazioari gai hau publikoki eztabaidatzeko prestutasun falta sumatu ostean, iniziatiba hartzea erabaki du GuraSOSeK. Aurrekaririk gabekoa eta “gizarte zibiletik antolaturikoa” izango den parte hartze prozesua abiatuko duela iragarri du; “Hitza Hartu” izeneko. Egoera desblokeatu eta hondakinen kudeaketari konponbide adostua ahalbidetzea helburu izango duena. Laster xehetasun gehiagoren berri ematekoa da guraso taldea.

## Errausketaren Aurkako Mugimendua

“Erraustegiaren zentzugabekeriaren aurrean norbanakook ekintzara igarotzeko unea da”, adierazi dute Errausketaren Aurkako Mugimendutik. Alternatiba merkeago, osasuntsuago eta jasangarriagoa badagonez, “eman ditzagun pausoak” deitu diete gipuzkoarrei. Adierazi dutenez, “%80 birziklatu daiteke, gutxi batzuen betiko negozioez nekatu gara! Hipoteka, gaixotasuna eta kutsaduraren aurrean guk ekonomia zirkularra, lanpostuak, osasuna eta ingurumenaren zaintza!”.

## Gipuzkoa Zutik-en sinadura bilketa

Gipuzkoako Foru Aldundiak erraustegiaren kontratua erakutsi dezan eskatzeko atxikimenduak biltzen ari da Gipuzkoa Zutik. Sinadura change.org atarian eman daiteke. Aste hasierarako jada, ia 3.000 sinadura bilduak zituzten.

## Eneco Aritza kultur parkeari buruzko aurkezpena eta irteera

Nafartarrak taldeak eta Usurbilgo Udalak antolatuta Etxarri Aranazko Eneco Aritza egitasmoaren inguruko bi hitzordu antolatu dituzte:

### Apirilak 19, asteazkena

■ 18:30 Eneco Aritza kultur parkearen proiektuaren aurkezpena Potxoenean.

■ Hizlaria: Eneco Aritza proiektuko bultzatzailea.

■ Zehaztasunak: “Memoria historikoa oinarrian duen Etxarri Aranazeko “Eneco Aritza” kultur parkearen proiektuaren aurkezpena izango da. Gure iragan historikoa eta politikoa, zein oraina ezagutu nahi duen pertsona eta eragile orori zuzendutako aurkezpena”.

### Apirilak 30, igandea

■ Eneco Aritza kultur parkeari irteera. “Memoria historikoa oinarrian duen Etxarri Aranazeko “Eneco Aritza” kultur parkea zuzenean ezagutzeko aukera izango dugu usurbildarrok, bertako kide baten eskutik”.

### Izena emateko:

■ lonxo@telefonica.net

■ noaua@noaua.eus

■ Antolatzaileak: Nafartarrak eta Usurbilgo Udala.



Amaia Zabala Eneco Aritza proiektuko kideak eskainiko du hitzaldia.

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiaurrena, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

**ESKAIOLA eta PLADUR**  
Joxean Elorza  
699426042  
USURBIL

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrena 8  
☎ 943 370 008

# Jarraipen eta Berme Batzordeak osatu dituzte

**M**aiatzaren 7ko galdeketa-ko prestaketa lanak aurrerantz doaz. Hilabete falta den honetan, galdeketa prozesua bete beharreko baldintzatan ospatuko dela ziurtatzeko Berme eta Jarraipen batzordeak osatu eta bi batzordeotako kideak izendatu zituzten, Herritzartu eta Zubiarthean Elkarrekin apirilaren 1ean Potxoenean egin zuten batzarrean.

Hain zuzen, Berme Batzorde bera partekatuko dute Usurbil eta Zubietako maiatzaren 7ko galdeketek. Aldiz, Jarraipen Batzorde bana izango dute. Usurbilgo galdeketa-ko Jarraipen Batzordea aurreko larunbatean osatu zuten Potxoenean. Zubietako galdeketa-ko begirakoa, igande eguerdian, apirilaren 9an aurkeztuko dute Zubietan. Ekitaldi berean, martxoaren 30ean Kaxkapen egin zuten batzar irekian, eta EHUko irakasle Mario Zubiagaren laguntzaz, herri kontsultarako adostu zuten galdera ere aurkeztuko dute. Segidan, Pagazpe eta Zubietako Pilota Elkarrekin bote luze desafioaz gozatzeko aukera izango dugu 12:00etan erreboten plazan. Kirol hitzordu hau, Herritzartu eta Zubiarthean Elkarrekin batera antolatu dute.

## Berme Batzordea

■ Kideak: Lourdes Furundarena Etxeberria-Berreiara (presidentea), Olatz Altuna Zumeta (idazkaria), Itsaso Gonzalez Ibarriaga.

■ Eginkizunak:

-Galdeketa prozesuaren gardentasuna, neutraltasuna eta prozesuaren objektibotasuna zaintzea.

-Egon daitezkeen helegiteei erantzutea.

-Protokoloaren interpretazioa egin eta horren arabera erabakiak hartzen direla ziurtatzea.

-Aholkua ematea.



Argazkian, Berme Batzordeko kideak. Usurbil zein Zubietako herri galdeketa ikuskatuko dituen talde berberak.



Argazkian, Usurbilgo Jarraipen Batzordeko kideak. Maider Makazaga eta Eñaut Pagola falta dira.

-Galdeketa-ko emaitzak adieraztea.

-Kanpainaren gardentasuna bermatzea.

-Dokumentuak suntsitzen direla ziurtatzea.

■ Oharra: Berme Batzorde bat eta bera partekatuko dute Usurbil eta Zubietako galdeketek.

## Jarraipen Batzordea

■ Kideak: Iñaki Mujika Aizpuru, Marisa Alejandro Goraliza, Iñaki Zabaleta Imaz, Odei Guirado Irasuegi, Xabier Udabe Pagola, Maider Makazaga Beristain, Eñaut Pagola

Bereziartua, Andoni Larrañaga Oroz, Ana Esnaola Etxabe, Xabier Alustiza Bergara.

■ Eginkizunak:

-Galdeketa prozesu osoa ikuskatzea eta Berme Batzordearekin batera deialdiak eta protokoloak ezartzen dutenaren arabera betetzen dela bermatzea.

-Galdeketa-ko fase guztiak behar bezala betetzen direla ziurtatzea.

-Mahaietako zenbaketa emaitzak jasotzea.

-Ordezkariek izendatzea...

■ Oharra: Jarraipen Batzorde bana izango dute Usurbil eta Zubietako galdeketek.

## Usurbilgo agenda

### Apirilak 5, asteazkena

19:00 Hitzaldia Sutegin: Tolosaldeko galdeketa-ko inbentarioak ezagutzeko aukera. Hizlariak: Kike Amonarriz (soziolinguista, aurkezlea) eta Garbiñe Biurrin (epailea). NOAUA! KErekin elkarlanean antolatua.

### Apirilak 21, ostirala

19:00 Hitzaldia Sutegin: "Erabakitze eskubidea alderdi politikoen ahota". Hizlariak: Luke Uribetxeberria (EAJ-PNV), Marian Beitialarrangoitia (EH Bildu) eta Juantxo Iturria (Ahal Dugu-Podemos). Elkarrizketatzailea: Fermin Munarriz (kazetaria).

### Apirilak 29, larunbata

Erabaki Fest jaialdia egun osoan Kaxkoan. Goizean, mo- saiko erraldoia. Eguerdian, zikiro jana frontoian. Txartelak apirilaren 23ra arte salgai Artzabal, Irrati, Bordatxo, Aitzaga, Txiriboga eta Patri tabernetan. Prezioa: 23 euro. Langabetuek 15 euro. Haur- rentzako paella 8 eurotan.

### Maiatzak 2-6, asteartetik larunbatera

Herri kontsultarako aurrez bozkatzeko aukera Herritzartuk Etxebeste kalean duen egoitzan. Orduetegiak:

-Maiatzak 2, 18:00-20:00.

-Maiatzak 3, 11:00-13:00/18:00-20:00.

-Maiatzak 4, 18:00-20:00.

-Maiatzak 5, 19:00-21:00.

-Maiatzak 6, 11:00-14:00.

### Maiatzak 7, igandea

09:00-20:00 Galdeketa. Bozka lekuak: Kaxkoan (Mikel Laboa plaza eta Etxebeste kalearen artean, Kontseju Txiki etxearen aurrean), Kalezarren (Haur Eskola eta Ugarte baserri ondoko markesina parean), Santuenean (Ibai Ondo elkarte ondoko plazan) eta Aginagan (apaiz- etxean).

## Bozka eman aurretik, bozka emaileak kontuan hartu beharko dituenak

Usurbilgo galdeketa partehartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

■ 16 urte beteak izan eta Usurbilen erroldatua egotea.

■ Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

A- Espainiako Estatuak herritartzat jotzen dituen pertsonen, ondorengo identifikazio dokumenturen bat aurkeztu behar dute: Espainiako Nortasun Agiri Nazionala (NAN); EHNA + 2017 errolda agiria; gidabaimena + 2017ko errolda agiria; edo pasaporteak.

B- Espainiako Estatuak herritartzat jotzen ez dituen pertso-



16 urte beteak dituenak ere har dezake parte.

nek, ondorengo identifikazio dokumenturen bat aurkeztu behar dute: bizileku txartela (Europar Batasuneko kide ez diren Estatuetakoa herritarren kasuan); jatorrizko Estatuak jaulkitako nortasun txartela edo pasaporteak; nortasun txartela edo agiria; edo gidabaimena + 2017ko errolda agiria.

na + 2017ko errolda agiria.

■ Oharra: Norbere identifikazio dokumentuarekin batera, derrigorrez aurkeztu beharko da 2017ko errolda agiria kasutan: identifikazio dokumentua iraugita badago edo identifikazio dokumentuan ageri den helbidea ez bada Usurbilgo udalerrikoa.

### Hartuemanetarako:

usurbilgureeskudago@gmail.com  
Facebook: Gure Esku Dago Usurbil  
Twitter: @GureEskuDagoU

Antolatzailea: Herritzartu Elkartea.

## Zubietako herri kontsultarako galdera igandean aurkeztuko dute

Zubietan ere aurrerabidean dira, maiatzaren 7ko herri kontsultarako antolaketa lanak. Galdeketa berme guztiekin ospatuko dela ziurtatzeko, Usurbilen bezala bi batzorde eratuko dira Zubietan ere; Berme eta Jarraipen Batzordeak. Usurbilgoak larunbatean osatu zituen Herritzartu Elkartek, Potxoenean egin zuten batzarrean. Usurbilgo galdeketa Berme Batzorde bera izango du Zubietako herri kontsultak ere. Aldiz, Jarraipen Batzorde propioa izango dute zubietarrek. Igande honetan bertan aurkeztuko dute, apirilaren 9an goizeko 11:30etan.

Honez gain, kontsultarako galdera zein izango den ere ezagutzera emango dute. Galdera, martxoaren 30ean Kaxkapen egin zuten herri batzarrean adostu zuten (ondoko irudian), saiora gonbidatu zuten Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Mario Zubiagaren laguntzaz.



Mario Zubiaga EHUKo irakaslea Zubietako Kaxkapen izan zen aurreko astean.

### Bote luze desafioa, erabakitze eskubidearen alde

Maiatzaren 7ko Usurbilgo eta Zubietako herri kontsultak giroa, Usurbilgo Pagazpe eta Zubieta Pilota Elkarteko bosna kide lehian jarriko dituzten bote luze desafioa antolatu dute elkarrean Herritzartu eta Zubiarrean elkarrekin, apirilaren 9rako 12:00etan Zubietako Errebote plazan. Gipuzkoako hainbat herrietan ari dira jokamolde hau suspertzen. "Usurbildarrok zein zubietarrok badugu eskarmentua pilota jokoetan, batzuk esku pilotan eta bes-

teak errebotean. Oraingoan, ordea, ez du inork abantailarik edukiko, bestelako joko baten baitan jarriko baititugu lanean gure pilotariak: bote luzean, pilota jokoaren modalitateak zaharrenean alegia", adierazi dute antolatzaileek. Ekintza gehiago ere iragarri dituzte egun horretarako. "Bertaratu zaitezten animatzen zaituztegu herri galdeketa antolatzen gabilzan bi elkarrekin. Euskal usadioaz gozatzeko aukera bikaina izango dugu", iragarri dute. Partida ospatu artean, hamaiketako goxoa sukaldatu eta zerbitzatuko da.

### Bolondres faltan

Maiatzaren 7ko herri galdeketa begira, Herritzartuk bolondresak behar ditu.

Nagusiki bi funtzio hauek betetzeko: hautes-mahaian egoteko edota laguntzaile lanak egiteko (segurtasuna, irisgarritasuna, eta abar).

### Nola egin naiteke laguntzaile?

Bolondres gisa izena emateko epea apirilaren 5ean amaituko da. Izena emateko:

■ Herritzarturen lokalera hurbilduz: astelehenean ostiralera, 18:00-20:00 bitartean.

■ Hitzaldietan jarriko diren mahaietan izena emanez.

### Zubietako agenda

#### Apirilak 9, igandea

11:30 Herri kontsultarako Jarraipen Batzordearen eta galderaren aurkezpena errebote plazan.

12:00 Pagazpe eta Zubieta Pilota Elkarteen arteko bote luze desafioa errebote plazan, Herritzartu eta Zubiarrean elkarrekin antolatuta. Bitartean, hamaiketako.

#### Asteartero:

Galdeketa antolatzeko taldea asteartero biltzen da 19:00etan, Zubietako Kaxkapen egoitzan.

#### Maiatzak 7, igandea

Galdeketa eguna.

#### Hartuemanetarako:

zubiarrean@gmail.com  
Facebook: Zubiarrean  
Antolatzailea: Zubiarrean Elkartea.



Galderaren berri igande honetako ekitaldian emango dute.

# Altsasuko gazteak Iruñean epaitzea eskatu du Udalak

Iazko urrian Altsasun izandako gertaeretan, “zenbait gazte terrorismo delituegatik inputatuak izan ziren eta prozesu horren izapideak Iruñean egitea eskatzen dugu, izan ere, epaitzeko eskumena tokian-tokiko epaitegiei baitagokie eta ez Entzutegi Nazionalari”. Hala dio, Usurbilgo EHBilduk aurkeztu eta martxoaren 28ko osoko ohiko bilkuran Usurbilgo Udaleko udalbatzak gehiengo osoz onartu zuten mozioak.

Desegoki eta neurrigabekotzat jotzen du mozioak, desadostasuna agertzeaz gain, gertakariok terrorismotzat jo eta “atxilotu eta auzipetutako zortzi pertsonetarikoko batzuei behin-behineko neurri gisa baldintza gabeko espetxeratzea inposatu izana”. Inplikatuak dauden pertsona guztiei, baita bere senide eta Altsasuko udalerritari ere, elkartasuna adierazten die testuak.

Udalbatzak hartutako erabakiaren berri emango die Uda-



Aurreko udalbatza plenoan aztertu zen mozioa.

## EHBILDU ETA PNV, ALDE

**“Inplikatuak dauden pertsona guztiei, senideei eta Altsasuko udalerritari elkartasuna adierazten die mozioak”**

lak “Nafarroako Gobernuko Lehendakari, Funtzio Publikoa, Barne gaiak eta Justizia arloetako Sailburuari eta elkartasun taldeari”.

## PSE-EE: “Ez da gure funtzioa”

Mozioa gehiengo osoz onar-

tu zen, EHBildu eta EAJ udal taldeetako ordezkarien aldeko bozkekin. PSE-ko ordezkaria abstenitu zen. Fermin Orueren esanetan, “ez da gure funtzioa udal bezala, txosten hori ze epaitegi kudeatu behar duen esatea. Epaileek erabakitakoa errespetatu behar dugu”.

Adierazpenon aurrean, udal gobernu taldetik, azken hitza epaitegiak izango dutela argi izan arren, gai honetan “gure iritzia azaltzea badela gure egitekoa” defendatu zuen Xabier Arregi alkateak, gaiotan gizarteak duen papera erreibindikatzearekin batera.

## “Zure enpresa nola sortu eta kudeatu” ikastaroa

Betjerri-Buruntzako Udalek sustatu dute programa hau, eta enpresa bat sortu nahi dutenentzat edo sortu dutenentzat bideratuta dago. Ekintzaileri formakuntza eskaintzen zaie enpresa sortzeko edo kudeaketan laguntzeko. “Gertu

Asesores de Enpresa y Abogados SL” izango da kurtsoa eskainiko duen enpresa eta Lanbideren kolaborazioa izango du.

■ Ikastaro hau doanekoa da.

■ Ikastaroa Andoaingo Uri-gain etxean eskainiko dute,

apirilaren 26an eta 27an.

■ Bi txanda, aukeran: Goizez, 9:00-13:00. Arratsaldez, 15:00-19:00.

■ Informazio gehiago:

ekinean@andoain.eus

943 304 221 (Nerea Yurrebaso)

Lanbideko bulegoetan.

## Lan-uzte gehiago

### Euskotrenen

Tren zerbitzuan finkatu diren gutxieneko zerbitzuak, Zumaia-Donostia eta Lasarte-Hendaia lineetan:

■ Apirilak 7, 25 eta 27:

6:25-8:35 / 17:25-19:35.

■ Apirilak 11:

6:55-9:05 / 17:55-20:05.

■ Apirilak 19, 21:

07:25-09:35 / 18:25-20:35.

■ Informazio gehiago: 944 333 333 / euskotren.eus

## Errenta aitortzeko garaia

Hemen da 2016ko errenta eta aberastasuna aitortzeko kanpaina berria. Kontuan izan epeok: -Apirilak 6-ekainak 26: autolikidazio proposamenak onartzea.

-Apirilak 11-ekainak 5: errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea. Epea luzatu daiteke, ordu libreak egonez gero.

-Apirilak 18-ekainak 26: Internet bidez nahiz mekanizaturako modalitatezko errenta (abertasunarenak Internet modalitatez) aurkezteko epea.

Informazio gehiago:

902 100 040

gipuzkoa.eus/ogasuna

## Erroizpe elkarteko

### Batzar Nagusia

Apirilaren 23an igandea, Txokoaldeko Erroizpe Elkarteko urteko Batzar Orokorra egingo da. Lehen deialdia goizeko 10:30ean izango da, bigarrena 11:00etan. “Hamaiketako ere izango da, animatu beraz bazkide zaretenok bertaratzera, zer entzun eta esana badago eta”.

# ELORZA

O BRAK ETA  
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# txirriStra

TABERNA




-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



# Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2016 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2016ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

## ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Begiraleekin antofaturiko jarduerak

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kalakean.

657 794 677  
www.begi-bistan.com · info@begi-bistan.com

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!



12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sup>n</sup>

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com







[Klik! batean](#)

## Aingeru zaindaria

Urte amaieran, behin betiko itxiko dute hilerri zaharra. Hantxe topatu dugu, bere bakardadean. Berehala sortu zaigu ondoko dilema: aurrerantzean, zaintzekorik izango al du zaindaria? Eta zaindaria, nork zainduko du zaindaria?

Argazkia: Ion Markel

# Dantza Eguna osasuntsu, bosgarren edizioan

**D**uela sei urteko Usurbilgo jaietako azken trakan berreskuratu zuten koreografia lantzerakoan eman zen Dantza Eguna antolatzeke lehen urratsa. Herritar talde batek halako dantzak lantzeko nahia agertu zuen. Hortik aurrerako pausoak katean etorri ziren. Taldea osatu eta entseguekin hasi ziren. Aurten bosgarren edizioa bete du Dantza Eguna.



“Usurbilen dantza bizirik dagoela erakusten du egun honek”.

Entseguotako lanketak, Dantza Taldeak uda partean auzoetako jaietan eskaintzen dituzten emanaldietan leku egokirik aurkitzen ez zuten, “pentsatu genuen polita izango zela Dantza Eguna bat antolatzea”. Esan eta egin. 2013ko apirilaren 27an ospatu zen estreinako edizioa, herriko dantza estilo ezberdinen edota Orbeldikoek lantutako “Sorginetxe” ikuskizunaren bueltan. Oso oroitzapen gozoa dute urte hartaz, baita oro har, ordutik Dantza Eguna Dantza Taldeari egin dion ekarpenaz ere. Talde barrura begi-

**ORBELDI**

**“Herriak eman duen erantzuna garrantzitsua izan da. Dantza Eguna indartsu dago eta hala segi behar du”**

ra, “Dantza Eguna lortu du dantzariak taldean motibazioa mantentzea”. Kanpora begira aldiz, “herrian interesa piztu du. Eguna honek Usurbilen dantza bizirik dagoela erakusten du”. Dantzariarentzat ondo pasatzeko egun handia da Dantza Eguna. Taldea handitu eta egonkortzen

lagundu du gainera. Pentsa, haurrekin lan egitekin, helduen 3 talde izatera heldu dira. Eguna, 130 bat ume eta 80 helduek osatzen dute Orbeldi. Tartean bada nabarmendu nahi duten helduen talde bat; erromeria dantzetan aritzen direnak. Orbelditik oroitzen dutenez, “emakumeok beti publiko artean txaloak egiten aritu diren pertsonak izan dira eta lehenengo urtean beraiek eskenatik protagonista izan, ze emozio zuten ikusi eta txaloak haiek jasotzea gauza handia izan zen”.

## Biziagotzen

Hasieran dantzariak bakarrik parte hartzen zuten Dantza Egunaren amaierako ikuskizunetan, gero antzezleak ere batu zitzaizkien. Aurten herriko musikariak ere animatu dira, zuzeneko musika izango da. “Genuen muntaiarekin jo dugu haiengana eta haiek guk eskaturikora moldatu dira. Eskertze-koa da haien eta antzerkikoen parte hartzea”, adierazi dute Orbelditik. Azkenean, herriko artisten topagunean bilakatu da emanaldia, “indarra eta beste perspektiba ematen diote”.

Argi denez, osagai berriak txertatzen doaz urtero, eta bide horretan segi nahi lukete. “Herriak eman duen erantzuna garrantzitsua izan da. Dantza Eguna indartsu dago eta hala segi behar du”, diote.

Orbeldikoek, Dantza Egunean parte hartzeri animatzen dituzte herritarrak. “Giro oso ona dago. Herritar gehiago hartzeko prest gaude. Probazterea etorri nahi duenak etorri dadila lasai”.

## Dantzarien jostunak

Usurbilgo dantzarien arropen botako genien begia sarritan, baina jantzi horien atzean dagoen lana ez zaigu ziurrenik hain ezaguna egingo. Orbeldi jostun talde prestu askoa du. Potxoenean biltzen dira asteazken arratsaldero. “Oso giro ona dugu. Orain hemendik atera eta kafea hartzera goaz”, zioten NOAUA!ri.

Hiru urte daramatzate zeregintan. “Dantza Taldeak lokal zaharrean zituen arropak txukuntzen, berritzen hasi ginen. Gero material berria neurrirra josten, txalekoak, gonak...”, adierazi digute.

Aurreko Dantza Eguneko



Jostun taldean ere badira dantzan aritzen direnak.

edizioetan dantzariak soinean zeramatzaten jantziak ere jostun taldeak landutakoak dira.

Mimo handiz aritzen diren lanean, gustura. Bat baino gehiagok aipatu digu josten ikasten ari dela, nahiz taldeak baduen

15 urtez geroztik eremu honetan trebatu den irakaslea: Maria Luisa. Bere esanetan taldea nabarmen trebatu da urteotan. “Aldea egin dute. Trebatu direla ikusten da. Oso gustura dabil-tza”, adierazi dio NOAUA!ri.

## Dantza Taldeak esker ona adierazi nahi die

Orbeldi Dantza Taldeak esker ona baino ez du jostunontzat. “Asko eskertzen dugu egiten duten lana. Arropa erosten hasi beharko bagenu, dirutza xahutu beharko genuke. Talde honek lana eta diru asko aurretzen digu. Mimos egindako jantziak direnez gero gehiago luzitzen ditugu gainera”, adierazi digute dantza taldekoek.

Datorren “kolekzioa” Kalezarko San Juan jaietan eskainiko duten emanaldian aurkeztuko dute. Irribarre artean, esan digute, jada marka propioa sortu dutela; “Orbeldi Jantziak”.

# V. Dantza Eguneko egitaraua



Herriko artisten topagune izango da eguneko azken emanaldia: "Indiana Jones eta Kaliz Sakratua" izenekoa.

## Apirilak 6-8, ostegunetik larunbatera

■ Orduetgia: apirilaren 6 eta 7an 17:30-20:00 artean eta apirilaren 8an egun osoz.  
 ■ Sutegiko erakustaretoan.  
 ■ Zehaztasunak: "Ion Markel Saez de Urabainek aurreko edizioetan ateratako argazkien erakusketa".

■ 11:30 Argazki ofiziala udal-  
 te aurrean.  
 ■ 12:00 Kalejira herrian zehar.  
 Dantza saioak eskaintzeko gel-  
 dialdiak egingo dira.  
 ■ 13:30 Ekitaldi nagusia fron-  
 toian.  
 ■ 14:30 Dantzarien bazkaria.  
 ■ 18:00 Dantzaldi gidatua fron-  
 toian, Ttipika taldearekin.

22:30 "Indiana Jones eta ka-  
 liz sakratua" ikuskizuna fron-  
 toian, Orbeldi Dantza Taldea-  
 ren eskutik.  
 "Musika, dantza eta antzerkia  
 uztartzen dituen ikuskizuna,  
 70 herritar oholtza gainean  
 izango direlarik. Indiana Jones  
 abenturazale famatuaren gora-  
 beherak Euskal Herrian zehar,

Orbeldi Dantza Taldearen ikus-  
 pegitik interpretatuak".  
 ■ Antolatzailea: Orbeldi Dan-  
 tza Taldea.

## Apirilak 9, igandea

■ 13:00 Tioteronen semeak  
 taldekoen "Fresh-Cool" ikus-  
 kizuna, Bizi Kalea ekimenaren  
 baitan. Mikel Laboa plazan.

## Apirilak 7, ostirala

■ 19:30 Dantza klasikoko  
 erakustaldia Sutegiko audi-  
 torioan: "Dantza Klasikoko  
 erakustaldia, Donostiako udal  
 musika eta dantza eskolaren  
 eskutik. Coral Lopez Castel-  
 llanos eta Maider Urrestarazu  
 irakasleen Dantza Klasikoko  
 Oinarritzko Taldea, Erdiko Tal-  
 dea eta Talde aurreratua ikus-  
 teko aukera izango da".

## Apirilak 8, larunbata

■ 10:30 Dantza taldeei harre-  
 ra Potxoenean. Parte hartzai-  
 leak: Ortzadar Dantza Taldea  
 (Iruñea), Erketz Dantza Taldea  
 (Lasarte-Oria), Lainomendi  
 Dantza Taldea (Derio), Orbeldi  
 Dantza Taldea (Usurbil).

## Bernat Etxepare lizeoa laguntzeko ekitaldiak

Irailetik aurrera zabalik  
 izango duten eraikin berria  
 ekipatzeko 300.000 euroko  
 laguntza behar dute. Sagar-  
 rondoak jarri dituzte salgai.  
 Ostiralera arte, erosi ahalko  
 dituzue 30, 50, 100, edo euro  
 gehiagoren truke, NOAUA!n,  
 Udarregi Ikastolan, Alkarta-  
 suna Kooperatiban, eta Lizardi  
 liburu dendan. Larunbatean  
 ere salgai izango dituzte, an-  
 tolatu dituzten elkartasun eki-  
 menetako bat izango da.

Lizeoko ikasleek NOAUA!ri  
 aipatu diotenez, eraikin berri-



Lizeoko ikasleak.

ko kanpoko egitura prest izan-  
 da, orain barneko lanak bidera-  
 tuko dituzte. "Ederra eta  
 handiagoa irudikatzen dugu  
 etorkizuneko lizeoa", adiera-  
 zi digute. Horretarako ordea,  
 guztion laguntza beharrez  
 dira. "Zuen beharra dugu sen-  
 titzeko jendea gurekin dela",  
 adierazi digute.

## Apirilak 8, larunbata

■ 10:30 Bernat Etxepare Li-  
 zea babesteko sagarrondoan  
 landaketa, Udarregi Ikastola  
 atarian.  
 ■ 11:00 Sagastien Paisaia Kul-  
 turala ezagutzeko ibilaldia  
 frontoitik, Jakoba Errekondo-  
 ren eskutik.  
 ■ 11:00-14:00/17:00-19:00 Bernat  
 Etxepare Lizeoa babesteko  
 sagarrondoan salmenta fron-  
 toian.  
 ■ Antolatzaileak: Udarregi  
 Ikastola eta Bernat Etxepare  
 Lizeoa. Informazio gehiago:  
 betxepare.eus

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**ARTZABAL**  
 BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA  
 PLATER KONBINATUAK  
 OGITARTEKOAK · TOSTAK  
 MENU BEREZIAK

943 36 91 39

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)

# Denborak itzali ezin duen sugarra

Aurtengoan ere ekin diogu Korrikari! Otxandiotik Iruñera, gure aberria zeharkatuz, 20. edizio honetan lekukoa eskuz esku pasako dugu. BatZuk hitz jokoa ahoan eta Zirkorrika abestiaren erritmoan. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzeko ekimen honetan parte hartu nahi dugu, guretzat euskara hizkuntza, kultura eta mundu bat baita; bertako hizkuntza, gure kultur izaera eta munduan nor izateko modua. Euskal Herria euskaraz ulertzen dugun euskaldun eta euskaltzaleok aspaldi ekin baikenion geure hizkuntza sendotzeari, etorkizun hobe nahi dugulako.

DBH4ko ikasleok “Denborak itzali ezin dezakeen sugarra” lemapean babestu nahi izan dugu korrika. Azken finean horixe baita gure hizkuntza, mendez mende, pausoz pau-



Aginaga, Zubieta eta Usubilgo ikastetxeek bat egin zuten Korrikarekin. Irudi honetan, Udarregiko DBHko ikasleak.

so, oztopoak gaindituz mantendu den sua. Honen irautea ordea, ez da ausazko guraria izan. Hainbat izan dira su hori bizirik mantendu duten norbanako eta erakundeak, eta horien artean berebiziko garrantzia izan du AEK-k.

80.hamarkadatik egun arte, jo eta ke euskalduntze prozesua hauspotzen ibili den kolektiboa. Jardun hori alderdi anitzetatik babesteko sortu zen korrika.

Lasterketa berezi honetan denok irabaziko dugu, bertan

hondar ale txikiena hondartzara bilakatzen baita. Hamar egunez, Euskal Herriko errepi-deak irriz, ilusioz eta indarrez ureztatuz.

**Udarregi Ikastolako DBH4ko ikasleak.**



Aginagako Eskola Txikikoak izan ziren goiztiarrenak.



Aginagan mozorrotuta atera ziren hainbat lagun.



Udarregiko Haur Hezkuntzakoak, Usubilgo Mikel Laboa plazan.



Ikasleak, irakasleak eta gurasoak bat eginik aritu ziren Zubietan.

# BatZuk, mundu bat Korrika



## European, baina umore onean

### Lekukoa, eskuz esku

Lanbide Eskola, Zubietako Eskola Txikiko Ikasleen Guraso Elkarte, Zubietako Herri Batzarra, Zubietako Jai Batzordea, Ederlan, Kalezarko Jai Batzordea, Berriola, herritar talde bat, NOAUA! Kultur Elkarte, EHBildu, Usurbilgo Udala, Orbeldi Dantza

Taldea, Udaregi Ikastola, Elhuyar, Andatza M.K.T., Aginagako Jai Batzordea.

### Argazkiak eta bideoak

Argazki gehiago, QR kode honen bitartez edota noaua.eus web orrian zabaldu dugun Argazkitegian. Bideoak ere, web orrian.



# Korrikako zoro zoragarriak

Ion Martin eta Ibai Arrieta-ren abentura kontatzeko modukoa da. Aurreko larunbatean, Nafarroa aldera abiatu ziren. Korrikarekin bat egiteko gogoz abiatu ere. Asmoa bestelakoa bazen ere, konturatu orduko, maratoni baten distantzia osatu zuen Ion Martinek. Eta eskerrak! Tarte labur batez, bera izan zen korrikalari bakarra. Lekukoa eramaten amaitu zuen, halabeharrez. Halakoxeak dira Korrikako zoro zoragarriak.



Aurreko asteburuan, Ion Martin usurbildarrak 44 kilometro egin zituen jarraian. Ibai Arrieta argazkilaria izan zuen bidelagun. Berea da argazkia.

Ez pentsa programatuta zeogunik. Bezperan erabaki zuten joatea. Ibai Arrieta eta Ion Martinek elkar topo egin zuten kalean. "Asteburu honetan Nafarroa aldean ibiliko dira Korrikakoak. Joango al gara?". Inon proposamena begi onez ikusi zuen Ibaik eta halaxe abiatu ziren Arguedas aldera, auto bakarrean.

Duela sei urteko Korrikan, zonalde hartan izan zen Ion Martin, eta orduko esperien-

**44 KILOMETRO**  
**"Aurreko larunbatean, goizeko 05:22an Arguedasetik abiatu eta Caparroso arteko bidea osatu zuen Ion Martinek"**

tzia errepikatze gogoz zen. Ibai Arrieta, aldiz, argazkiak ateratzeko aukera polita ikusten zuen.

Usurbildik abiatu ziren Argue-

das aldera eta, bidean, Korrikarekin aurrez aurre egin zuten topo. Castejonon zeuden, eta gauerdia zen. Autoa aparkatu eta Korrikarekin bat egin zuten. 100 bat metro egin zituzten bi lagunek elkarrekin.

Atzera berriro aurora. Lo pixka bat egin eta Arguedas aldera hurbildu ziren. Orduan hasi zen Ion Martinen maratoni partikularra. 44 kilometro egin zituen jarraian. "Hasieran, ez nuen horrelako distantzia luzea egiteko asmo-

rik. Baina segi eta segi, azkenean 44 kilometro egin nituen jarraian! Furgonetakoek eman zidaten distantziaren berri".

## Tarte batean, Ion Martin izan zen korrikalari bakarra

Goizeko 5:22an hasi zen Ion korrika, eta 10:30ak arte ez zion korrika egiteari utzi. Denbora horretan, Ibai Arrieta atzetik segika autoan. Tarteka gelditzen zen, eta Korrikako karabanari argazkiak egiten ibili zen. Argazki horietako bat da azalean jaso duguna.

Herri inguruetan, koadrila majoa osatzen zen. Baina tarte askotan, laupabost lagun baino ez ziren. "Ia bi kilometrotan bakarrik aritu nintzen!", Ion Martinek adierazi digunez.

Igande honetan, Korrika Iruñean amaitzen denean, milaka izango dira. Aurretik Ion Martin, Ibai Arrieta eta beste zoro zoragarri askok egindako ahaleginari esker, hein handi batean.

# Noaua! App

Herriko berriak beti soinean

**Albisteak, agenda eta askoz gehiago Noaua! app berrian. Deskargatu doan eta jaso herriko azken berriak mugikorrean.**

Eskuratzeko:

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)



# OSASUN GIDA 2017



**Irati Ibargoien**  
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA  
**943 53 92 66**  
Puntapax 68, behea ezk. - USURBIL

**Jada zabalik!**

**Irati Ibargoien**  
FISIOTERAPIA - OSASUNA  
PILATES TERAPEUTIKOA

PILATES TERAPEUTIKO PERTSONALIZATUA  
Errehabilitazioa · Kirol fisioterapia  
Fisioterapia traumatologikoa · Terapia funtzionala  
Fisioterapia neurologikoa · Osteopatia



**USURBIL**  
**OPTIKA**

Bigarren lente pareta doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urruneko lenteetan

Zubiaurrenea, 10 • 943 370 269 • 675 708 654

2. lente pareta doan  
**2x1**  
PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN



**Öinutsik**  
p o d o l o g i a z e n t r o a

943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil



**Öinutsik**  
943 11 09 54

- Azterketa biomekanikoak
- Plantilak
- Papilomak
- Erreflexoterapia
- Kolagenozko infiltrazioa
- Kiropodiak



**Iturraldebotika**  
Tomas Iturralde botika  
108/12 PEZ

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua  
Dermofarmazia  
Produktu homeopatiakoak  
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 [www.iturraldebotika.com](http://www.iturraldebotika.com)



**Lizarralde**  
**ORTOPIEDIA**

- ✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
- ✓ Produktu ortopedikoen alokairu zerbitzua (oheak, aulkak, garabiak...)
- ✓ Arreta pertsonal eta espezializatua

Technikari ortopeda kontsulta Aholkularitza Produktu gama zabala

Kazkazuñ 1 boxua, Oiarzun - 943 543 585/ 688 678 583  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)

**LOGOPEDIA**  
Haurrak / Nerabeak / Helduak  
TERAPIA MIOFUNZIONALA



- Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfemiak, disfonia funtzionala sinple eta konplexua...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374

# Errefuxiatuen errealitate latza, hurbiletik

**D**iotenez, 321.000 lagun hil dituzte jada. 4 milioi lagunek ihes egin behar izan dute sorterritik, alde egin dutenen erdia haurrak izan dira. Milaka lagun hil dira Europara heldu nahian, bidean. Tartean haurrak. Beste askok lortu dute itsasoa gurutzatzea, baina errefuxiatu kanpamenduetan harrapatuta daude. Ez aurrera ez atzera. Europako muga gaintu nahi, eta kasu askotan, ezin. Gertutik ezagutu dituzte Siriako guda eragiten ari den sarraskiaren ondorioak, azken hila-beteotan Greziako Kios irlako eta Serbiako Belgradoko errefuxiatu kanpamenduetan izan diren herritarrek. Lerrootan bildu dugu haien esperientzia.

## Tren geltoki abandonatua, bizileku

Hurbiletik ezagutu dute errefuxiatuen errealitate latza. Distantziatik egunerokoan hedabideen bidez ikustera "ohitu" garena bezain edo are gogorragoa dela diote Juanito Orella eta Jose Luis Aranburu herritarrek. Belgradon (Serbiako hiriburuan) egonak dira duela aste gutxi, Trintxerpeko Mundu Berri Elkartekoekin batera, aurrez Euskal Herrian bil-



Juanito Orella eta Jose Luis Aranburu Belgradon izan ziren Euskal Herrian bildutako arropa banatzen.

## BELGRADON

**"Juanito Orella eta Jose Luis Aranburu Belgradon egonak dira duela aste gutxi, Mundu Berri Elkartekoekin batera"**

dutako arropa bertara garraiatu eta banatzen.

Belgradora iritsitakoan, panorama latza aurkitu zuten. Batetik, Siriako gerratik ihesi zetozenentzako Gobernuak egokitutako kanpamendu ofizialak. Juanito eta Jose Luis orde, hiriburuko trenbide amaierako geltoki abandonatuan "bizi" ziren 700-800

bat errefuxiatuekin egoteko aukera izan zuten. Ez zetozen Siriako gerratik ihesi, Pakistan edota Afganistan inguruetatik baizik, eta ez zuten bertako Gobernuaren laguntzarik. Nahiz gainerako errefuxiatuak bezala laguntza behar izan, "ezer gabe" ziren, Aranburuk NOAUA!ri azaldu dionez.

## Negu betean

10 gradu zero azpiko eguntan, negu gorrian alegia, bota eta arropa zaharrek, lurtean mantekin, zikinkeriaz jositako barrakoietan bizi dira. Boluntarioek eramandako egurrekin sua piztu eta haren bueltan berotzen dira. Ur hornidurarik ez dute, komunaren funtzioa

betetzen duten zuloak baino ez dituzte, eta, baldeetako urarekin garbitu behar izaten dute. Bolondresak emandakotik bizi dira. Legezta gabeko egoeran izan arren, bertako poliziak bakean uzten omen ditu. "Gobernuak bidali ditzaket bertatik, baina hori egingo balute gaizki ikusia legoke", dio Aranburuk.

## Muga pasa nahian

Errefuxiatu guztiok, "zer etorkizun dute?", galdetzen du Juanitok. Belgrado askorentzat pasabidea baino ez da. Europar barneratzeko hiriburu honetatik 200-300 kilometrotara dagoen muga gaintzea dute helburu guztiak. Batzuek lortzen dute, besteek ez, eta atzera kanpamenduetara itzuli behar izaten dute. Baina inoiz ez etxera. Kanpamendura heltzeko "bakarrik ze ibilerak egin dituzten. Zenbat estuasun pasa duten. Arropa banatzen ari girela gazte bat etorri zitzaigun. Aita Madrilen zuela eta hara eramateko eskatzen zigun. Telefonoz deitu zion une hartan bertan eta aitarekin jarri zidan. Madrilen zegoela. Semea ekartzeko eskatzen zidan. Laguntzeko", adierazi digu Orellak.

# Laguntza beharrak etenik ez

Kanpamenduetan ez da lanik falta. Besteak beste, Euskal Herriatik joandako bolondres askoren laguntza dute. Batzuk otorduak prestatzen aritzen dira, Iruñetik joandako suhiltzaileak berogailuak instalatzen aritu dira, tolosar talde batek sukalde bat ere egokitu die.

Haien egunerokoa, sutarako egurra ekartzea, sukaldatzea, garbiketa lanak, jatekoa eta arropa banatzea...

dira. Errefuxiatuei ahal dieten oinarrizko laguntza eskaintzea. Emandako laguntzaren truke, eskerrik onena jasotzen dute. "Zerbait emanda, jendea beti irribarrez ikusten duzu", dio Juanitok.

Jose Luis eta Juanito astebetetz ibili ziren zazpi bat kanpamenduetan, Euskal Herriatik garraiatuak ehunka kilometroko elkartasun bidaian, arropa banatzen. Guztira "16.000 kilo banatu genituen astebetean", adierazi digute.

Badirudi negu parterako behar zuten arropa nahikoa jaso dutela bertako errefuxiatuek. Orain diru-laguntza behar izan dira.

Bi herritarrok, martxoaren 17an Sutegin antolatutako "Nacido en Siria" filmaren proiektzioan parte hartu zuten Mundu Berri elkartearen kideekin batera, lekukotzak eskainiz. Ekitaldirako ordaindu behar zen sarreratik bildutako dirua ere Serbiara bidaltzekoak dira.



Astebetean zazpi kanpamendu bisitatu zituzten.

# Kanpamenduetan harrapatuta

Errefuxiatuen alde eginiko lanagatik, Eusko Jaur-laritzaren Rene Cassin saria jaso zuen urte amaieran. Euskal Herritik errefuxiatuei elikagaiak helarazten aritu den Zaporeak proiektuari buruz ari gara. Elkartasun egitasmo hau, Donostiako Intxaurrondotik Wukroa elkarteak sortu zuen. Martxoaren 5era arte, Greziako Kios uharteko errefuxiatuei egunero janariak zerbitzatzen aritu dira azken urtean. Ordu-tik, sukaldaritzako materiala eta elikagaiak Greziako beste errefuxiatu kanpamenduetan banatzeari ekin zioten.

Proiektu hau gertutik ezagutu dutenen artean dugu ondoko irudiko zubietar taldea. Udazkenean Kioseko hiriburuko errefuxiatuen kanpamenduan izan ziren. Turkiatik kilometro gutxira,



Greziako Kios uharteko errefuxiatuei egunero janariak zerbitzatzen aritu dira "Intxaurrondotik Wukroa" elkarteak. Eta eurekin, hainbat herritar.

## BOLONDRESAK

**Gogorrena zen  
"ez zutela etorkizunik  
ikusten" eta diotenez,  
"Europatik ez zaie  
irtenbiderik ematen"**

pateren etorrera ohikoa bihurtu den inguruetan. Bizi esperientzia polita bezain gogorra izan zela diote.

## Zaporeak elkartekoekin

Elikagai bete furgoneta handi bat eraman zuten, eta han,

Zaporeak elkartekoekin batera aritu ziren errefuxiatuentzako janaria sukaldatu eta zerbitzatzen. Gertutik ezagutu zuten bertan bizi baldintza ez duinetan dauden errefuxiatuen egoera; sorterritik bizimodu hobe baten bila ihes egiteko 3.000 euro ordaindu eta alde egin nahi izan arren kanpamenduan harrapatua zegoen gaztearena; Turkiatik igerian neoprenozko jantzi batekin iritsitakoa, barruan traje bat jantzia zeramala; Italian zuen familiarengana heldu nahi zuen errefuxiatuarena... "Ez zuten ezer. Kanpin-denda eta janaria jasotzeko baldea", adierazi diote NOAUA! aldi-kariari.

Gogorrena zen, "ez zutela etorkizunik ikusten" eta diotenez, "Europatik ez zaie irtenbiderik ematen".

# Prekarietatea eta segurtasun falta

Elkarbizitza ez omen da oso erraza. Ohikoak omen dira gau parteko liskarrak. Kanpamendu berean 25-30 jatorri ezberdinetako herritarrak bizi dira. "Batzuk Siriako gerratik ihesi datozenak. Baina badira errefuxiatu ekonomikoak ere, argeliarrak, nepaldarrak, afganistandarrak...", adierazi digute. Kanpamendua egoera prekarioan izatez gain, ez dago behar beste segurtasunik. Emakume zein haurren aurkako bortxakeriak maiz izaten dira. Kanpamenduak ere kanpotik erasotu izan dituzte, Zaporeak-en sukaldea bera ere bai.

Baina latzena haurren egoera da. "Laguntzera zoaz baina sufritu egiten duzu. Janaria banatzeko ilaran ginenean, malkoei eutsi behar izaten genien", adierazi digute. Distantziatik hang



"Haserre handia sentitzen genuen itzultitakoan. Zerbait egin duzun baina aldi berean ezer egin ez duzun sentsazioarekin itzultzen zara".

irudiak ikustea gogorra bada, "haiei eskua emanda zaude-nean, lazgarria da. Bihotza hausten dizu".

Elkartasuna banatzera joandakoen artean sarritan gertatu ohi dena, emandakoa asko da, baina jasotakoa are gehiago. Ezer izan ez arren, zuten gutxia partekatzeko eskuzabalik beti. "Duten bitarteko gutxirekin tea hartzera gonbidatzen zintuzten haien kanpamenduetara", oroitzen dute.

## Gune gogokoena

Antolakuntza mundiala aurkitu zuten. Lana gogor egiten zuten, egunero 12 ordu-tik gora aritzen ziren kalitatezko elikagaiekin sukaldaturiko 1.300 otordutik gora zerbitzatzen. Ondoen bertan jaten zen, errefuxiatuen gustuko janaria sukaldatzen baitzuten mimo handiz. Primerako giroa zuten, lagun arte eta auzolan giro ederra. Pentsa, "beste GKE guztiek gurekin lan egitera etorri nahi izaten

zuten. Harritu egiten ziren gure lan egiteko moduaz, askok ez baitzuten ulertzen auzolanaren kontzeptua. Hemen egiten diren elkartasun bilketak. Norvegiarrek adibidez, erakundeetako diru-laguntzak jasotzen zituzten".


Etxera itzultzeko garaian, inpotentzia handia sentitu zuten. "Haserre handia sentitzen genuen itzultitakoan. Zerbait egin duzun baina aldi berean ezer egin ez duzun sentsazioarekin itzultzen zara, azkenean egoera berean uzten baitituzu. Jendeak dio zerbait egin duzula, baina hori ez dela ezer jabetzen zara. Inpotentzia hori ekartzen duzu itzultzerakoan, bueltatzeko gogoaz gain", adierazi diote NOAUA!ri. Desio argia dute. Zaila den arren, "ia lehenbailehen handik ateratzen diren eta bizimodu hobea bilatzen duten". Informazio gehiago: zaporeak-sabores.com

# Zubietako ur zikinak ere, Loiolako araztegia

Oria eta errio ertzeko flora, fauna eta herri-tarren bizi kalitatea hobetzen lagunduko duen eraikina inauguratu zuten martxoaren 31n Zubietako Aliri zubiaren ondoan; hondakin-uren ponpatze estazio berria. Ekitaldian parte hartu zuten Zubietako Herri Batzarrak, Donostia eta Usurbilgo Udalek, baita udalerririk kide dituen eta lanon egile, Añarbe Urak Mankomunitateak ere.

Zubietako ur zikinak estazio berri honetara doaz orduetik eta ez orain artean bezala, erriora. Handik, Usurbil aldeko ur zikinak hipodromotik gertu duela urtebete martxan jarri zuten ponpalekura garraiatzen dituen kolektorera. Eta gune honetatik, Loiolako araztegia. Bertan tratatu eta itsasoratuko dira gero.

Hartara, orain arte Irigoien eta Urbitarte kaleek bat egin zuten puntuan eta Aliri zubiaren ondoan isurtzen ziren Zubietako ur zikinak aurrerantzean



Martxoaren 31n inauguratu zen hondakin-uren ponpatze estazio berria.

## PONPALEKU BERRIA

**“Zubietako ur zikinak estazio berri honetara doaz orain eta ez erriora. Eta gune honetatik, Loiolako araztegia”**

behar bezala tratatuko dituzte, duela urtebetetik, Usurbilgoekin egiten den bezala. Inguruotan beraz, Aginaga aldekoa da

egun, ur zikinen saneamendua sare honetatik kanpo geratzen den zonalde bakarra.

## Inbertsioa

Lan guztion kostua, 356.015 eurokoa izan da. Baina azken hamarkada pasatxoan, Usurbil zein Donostiako udalerririk kide dituen Añarbe Urak Mankomunitateak eginiko esku-hartzeen inbertsioa guztira, ia bi milioi eurokoa izan da:

- 2002: Ipar eta Hego Zubietako saneamendua: 924.073 euro.
- 2003: Zubietako erdiguneko saneamendua obra osagarriak: 15.694 euro.
- 2011: Zubietako landa guneko saneamendua: 490.595 euro.
- 2017: Zubietako saneamendua eta Oria Beheko interzeptorearen konexioa: 356.015 euro.
- Guztira: 1.786.377 euro.

## Joxe Mari Zubimendi, Zubietako alkatea:

### “Pozgarria denontzat”

Inaugurazio ekitaldia zubiarentzat egun handi eta pozgarria dela adierazi zuen Zubietako alkatea, aurrerantzean “Zubietan ez baita isuri zikinik izango”. Añarbe Urak Mankomunitateak eginiko apustu, inbertsio eta lana eskertzearekin batera, urarekin batera naturako beste elementuak zaintzea ere eskatu zuen Zubimendik. “Zaindu ditzagula baita ere hemendik aurrera, naturako gainerako elementuak; mendiak, airea, baratzak”.

# Aginaga sareratzea falta da orain

## Marije Zelaia, Añarbe Urak Mankomunitatea: “Ia bukatzen ari gara”

Ponpa estazio berri honekin, Zubietako ur zikinik Oriara ez isurtzeak ingurumenera ekarriko dituen onurak azpimarratu zituen Zelaia, eraikinaren estetika txukuna goraiatzeaz gain. Inguruotan erakundeak eginiko saneamendu lanei buruz zioenez, “oso harro esan dezakegu lan hori egin duela Añarbek eta Añarbe osatzen duten udalerriek”. Saneamendua sare honetan Aginaga edota Ereñotzu aldea integratzea baino ez omen zaie falta.

## Xabier Arregi, Usurbilgo alkatea: “Segi dezagun norabide honetan”

Egun handizat jo zuen Arregi inaugurazio ekitaldia, bere esanetan, baliabide natural ekologiko bat berreskuratuta eta etorkizuneko belaunaldiei bestelako erria uztea ahalbidetuko baitu. Oroitzen zenez, garai batean, “errio hau bertara inguratzeko moduan ez zen. Kirats izugarria zuen, egoera tamalgarrian zen”. Begi bistakoa denez, errioaren egoera hobetzen doa. Horretarako ezinbestekotzat jo zuen

ekologiarekiko konpromisoa egun batera ez mugatzea, egunerokoa izatea, “beraz segi dezagun norabide honetan”. Testuinguru honetan goraiatu nahi izan zuen, Zubietan martxan dagoen energia plana.

## Eneko Goia, Donostiako alkatea: “Donostiak lurraldearekiko bere ardurak hartzen ditu”

Zubietako estazio berria martxan jarrita, Donostiko ur zikinen saneamendua sare osatua geratu da. Pozik agertu zen Goia, eremu honetan eman diren urratsek inguru-

men eta bizi kalitate aldetik ekarriko dituen hobekuntzak direla eta. Eremu honetan, hiriburuak arduratsu jokatu duela adierazi zuen.

Oria ibaiak urteotan izan duen hoheranzko bilakaera ere azpimarratu zuen. “Ezagutu ditut ondo Oriako ur zikinak eta hori nola aldatu den azken urteotan”, oroitu zuen.

Atsegina suertatu zitzaioela adierazi zuen, ekitaldiak ahalbidetu zuen hiru alkateen parte hartzea. “Zubietan sentitzen dut baita ere gure hiriarren parte. Duen berezitasunak aberastasuna ekartzen dio gure hiriri”, zioen.

# Formazio saioak Zubietan

Zubietako Eskolako guraso elkarteak jardunaldiak antolatu ditu apirila amaiera eta maiatza hasierarako:

## Apirilak 25, asteartea

■ 17:00-19:00 “Hezkuntza eta generoa”.

■ Hizlaria: Amelia Barquín. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea (Mondragon Unibertsitatea). “Amelia Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea da Mondragon Unibertsitatean. Ikerketa eta irakaskuntza gaiak honakoak ditu, besteak beste: Kulturarteko hezkuntza, ikasle etorkinen hezkuntza trataera, hizkuntzaren erabilpen ez sexista eta hezkuntza eta generoa”.

## Maiatzak 2, asteartea

■ 17:00-19:00 “Hezkuntza



Amelia Barquín Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea da Mondragon Unibertsitatean.

eta generoa”. Amelia Barquín. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea (Mondragon Unibertsitatea).

## Maiatzak 9, asteartea

■ 14:30-16:00 “Haur sexualitatearen bide laguna”. Elena

Jimenez. Sexune taldeko sexologoa.

■ Formazio saioen lekua: Kaxkape.

Antolatzailea: ZUBIGE, Zubietako Herri Eskolako Ikasleen Guraso Elkarte.

# Odolaren Mintzoa, Gaztearen Maketa Lehiaketako finalean

Gaztearen XXVI. Maketa Lehiaketako azken faserako sailkatu da Odolaren Mintzoa Usurbilgo musika taldearen “Gizalegea” abestia, Empty Files (Bilbo), Eneritz Furyak (Irun), Passepartout (Azkoitia) eta Huts (Trapagaran) taldeekin batera. Luken Arkarazo (ahotsa eta gitarra), Beñat Txueka (gitarra), Joanes Txueka (baxua eta koroak) eta Jokin Irastorza (bateria) laukotea partaide izango duen final handia, apirilaren 27an ospatuko da, Bilboko Kafe Antzokian.

## Gazte Akelarreako bonoak

Ennai eta Aitzina gazte erakun-



Martxoaren 25ean, Odolaren Mintzoa taldekoak Urđiñarben aritu ziren zuzenean jotzen. Argazkia: Lontxo Zubiria.

deek “Gazte Akelarrea” antolatu dute apirilaren 13tik 16ra, Zornotzatik Igorrera. Gazte

Akelarrerako bonoak salgai dituzue Aitzagan. Informazio gehiagorako: gazteakelarrea.info

## Ikasle nahiz gurasoei zuzenduriko bi ikastaro antolatu ditu Hitz Ahok Buruhandiak

“Gure buruhandia egiten”: HH4-5 eta LH 1-2 ikasle eta gurasoei zuzendua. Apirilak 29, maiatzak 6, 13 eta 20 (larunbatetan, 16:00- 17:30).

## Buztina

“Buztina lantzen”: LH 1-6 ikasleei zuzendua. Maiatzak 5, 12 eta 19 (ostiraletan, 17:00- 18:30).

## Izen-ematea

Apirilaren 24ra arte izango da. hitzaho@udarregi.eus helbidera idatzi eta tailerra, izen abizenak, maila, eta telefono zenbakia utzi. Tailer bakoitzeko gehieneko taldea 15ekoa izango da eta izen ematearen arabera onartuko dira. Tailer bakoitzaren prezioa 15 eurokoa da.

## Euskararen

### erabilerari buruzko emaitzak kaleratzear

Soziolinguistika Klusterrak lauzpabost urtean behin egin ohi duen euskararen kale erabileraren neurketa datu berriak bildu zituen 2016an Usurbilgo Udalarentzat. Aurkezteko prest ditu jada. Udalak apirilaren 27an 18:00etan Potxoenean deitu duen ekitaldian plazaratuko ditu. Oraingoan gainera, euskararen kale erabilera neurtzeaz gain, hitanoaren erabilera ere aztertu zuen iaz Soziolinguistika Klusterrak. Adin tartearen arabera, generoaren ikuspegitik edota zonaldekako datuak ere eskainiko ditu aurkezpen ekitaldia bideratuko duen Soziolinguistika Klusterreko teknikari Olatz Altuna usurbildarrak. Aurreko neurketaldiko datuekin alderatzeko modua ere izango da.

## Eskubaloiko senior neska-mutilen taldeek denboraldi bikaina osatu dute

Usurbil Kirol Elkartetik aditzera eman dutenez, “denboraldi bikaina osatu dute bi taldeek, neskek igo berriak izanik ere ia beste igoera fase bat gertu izan baitute, eta mutilek, lesioekin izandako zorte txarra kontuan hartuta ere, aise mantenduko baitira beste urtebetez maila berean”.

### Neskek, Kanariar Uharteetan

Senior neskek asteburuan Kanariar Uharteetan irabazi arren, “ezin izango dute Estatuko maila gorenera, “Liga Loterías”-era igotzeko faserako sailkatu eta matematikoki hirugarren bukatuko dute”. Larunbatean 19:30ean Oiardo Kiroldegian jokatu dute ligako azken neurketa, sailkapen buruan den Logroñoren aurka. “Denboraldiari agur borobila ematea espero dute neskek”, adierazi du ohar bidez Usurbil K.E.-tik.

### 1. Nazionalean jarraituko dute mutilek

Mutlen taldeari dagokionez berri eman dutenez, “lau jardunaldiren faltan, datorren urtean 1. nazionalean jarraituko dutela bermatu dute asteburu honetan, Bidasoa B-ren porrotaren ondorioz”.



Senior neskek larunbatean 19:30ean Oiardo Kiroldegian jokatu dute ligako azken neurketa, sailkapen buru den Logroñoren aurka. Lau jardunaldiren faltan, mutilek mailari eutsiko diote.

Herriko bi talde maila hauek mantentzeko eginiko ahal-egina nabarmentzen dute, eskubaloiko taldeen bilgutetik. “Estatu mailan jokatzeko, jokalariek eta klubeko beste partaideek, eta baita herriak

ere, esfortzu eta sakrifizio handiak egin behar izan dituzte. Horren erakusgarri neskek zein mutilek aurkari izan dituzten talde guztiak herri edo hiri handiagotakoak zirela (biztanle aldetik behinik behin)”.

## “Oporrak Bakean” egitasmoa abian

Datorren udan 10-12 urte arteko haur sahararrak etxean hartzeko egitasmoarekin bat egin du aurten ere, Usurbilgo Udalak. Aurtengoan 100 familia behar dituzte, errefuxiatu kanpamenduetan bizi diren haurrak etxean hartzeko. EAEko Saharar Ordezkariek, Saharar Herriaren Lagunen Elkar-teekek eta erakunde ezberdinek

bultzaturiko proiektu honetan parte hartzeri animatzen dute. “Adin txikiko hauek, urtean gutxienez bi hilabetez, munduko desertutik gogorretatik irteteko beharra dute eta orain dela 40 urte lapurtu zieten osasuna berreskuratzeko beharra dute. Modu orekatuan elikatzeko beharra dute, elikagai eskasiak eragindako gaixotasunak sen-

datzeko. Mediku errebisioetara joateko beharra dute, eta beharrezkoa balitz tratamenduekin hasi. Neska eta mutil hauek oporrak bakean izateko beharra dute, itzalean egiten dituen 55°tik urrun”.

Argibide gehiago jasotzeko, gizarte-zerbitzuak@usurbil.eus, 943 377 110 edo web orrialdean:oporrakbakean.jimdo.com

### Mari Karmen Anza etxean da jada

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta martxoaren 31n egin zen hilero euskal preso eskubideen aldeko elkarretaratzean berri eman zuenez etxean da jada, “bi hilabete eta erdi erietxean pasa ondoren”. Gogoan izan, urtarrilean Olatz alaba bisitatzea eta jaio berri zen Xua biloba ezagutzera joan zela Anza. Valentzian gaizki sentitu eta hango ospitalean egin behar izan zuen hilabete pasatxo, ZIU-n lehenik eta plantan gero. Martxoaren hasieran Donostiako ospitalera ekarri zuten. Eta aipatu moduan, martxoaren 30az geroztik etxean da sendatzen. Elkarretaratze berean, Mari Karmenen ahizpa Arantzak eskerrak eman zizkien bere izenean usurbildarrei, hilabeteotan jasotako laguntza eta elkartasunagatik.

### Udal sare informatikoaren mantentze lanak

Mantentze lanon eraginez, Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez, “apirilaren 19an ezin izango da ez errolda agiririk ezta errezioben inguruko (Ura, ibilgailuak, kontribuzioa) informazioz helarazi. Horrez gain, apirilaren 18an eta 20ean ezin izango da bermatu aurrez aipatutako gaien informazioa momentuan eskaintzea. Hortaz, presazko agiriren bat eskatu behar duten usurbildarrei aipatutako egun horiek ez aukeratzeko gomendioa luzatu nahi dute udal ordezkariek. Bestalde, sorrarazi daitezkeen eragozpenengatik, Udalak barkamena eskatu nahi du alde zurretik”.

# Ostegun Santuan, Usurbil-Arantzazu bidea osatzeko aukera

**H**amarkada luzeko tradizioa berrituko dute datorren apirilaren 13an. Usurbildik Arantzazurako bidea oinez osatuko du herritar mendizale talde batek, eta haiengana batu nahi duen edonork. "Aukera polita, kirol pixka bat eginez, egun pasa eder bat egiteko", adierazi dute antolatzaileek. Honatx xehetasun gehiago:

- Eguna: apirilak 13, osteguna.
- Abiatzeko hitzordua: 05:00etan, frontoi atzetik. Poltsak (aldatzeko arropa, oinetakoak) jasoko dira autobuserako.
- Amaiera: Arantzazun, arratsaldeko 19:00ak aldera. Usurbilen 21:00ak alderako.
- Ibilbidea: Usurbil-Zela-



**Duela bost urtekoa da argazkia. Usurbil eta Arantzazu oinez osatzeko ohitura apirilaren 13an berrituko dute.**

tun-Santa Ageda (hemen bakoitzak eramandako bokata jaten da) -Mandubia (hemen salda eta ardo pixka bat)- Ezkio-Itxaso (40. km, hemen autobusa egongo da eta laranjak eztarria gozatzeko, eta norbait gaizki joanez gero autobusean Legazpira)- Legazpia (hemen bazkaltzeko entsalada, xerra

eta sagardoa)-Arantzazu, (63. km, hemen izerdia kendu eta merienda eder bat nahiko sagardorekin).

- Prezioa: hamaiketakoa, bazkaria, askaria eta autobusa, 50 euro.
- Izen ematea, aurrez telefono zenbaki honetan: 600 669 276 (Joxemi).

## Igande honetan, Beintza-Ziga lotuko dituen mendi irteera

Andatza M.K.T.-k antolatutako Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko 32 kilometroko laugarren etapa osatuko dute igande honetan, Beintza-Ziga artekoa, apirilaren 5a baino lehen izena eman zuten mendizaleek. Goizeko 07:30etan abiatuko dira autobusez Oiar-do Kiroldegitik. Gogoan izan, maiatzerako bi irteera antolatu ditu Andatza M.K.T.-k:

- Maiatzak 7: "Bidasoako Kontrabandistak 5": Ziga-Erratzu.
- Maiatzak 13-14: Herri Urrats



**Zigako herrian amaituko da igande honetako mendi irteera.**

(egun 1 edo 2).  
Bi eguneko: Ereñozu-Lesaka, Lesaka-Senpere.  
Egun batekoa: Lizuniaga-Senpere.  
Informazio gehiago: andatza.com



## Gipuzkoako Udaberri Txapelketan nagusi

Kadete mailako finalean, Gallarraga-Irurettagoiena bikoteak (Pagazpe) 22-16 irabazi zion Zubeldia-Olano bikoteari (Intxurre, Alegia). Zorionak!

**Apirilak 7 ostirala:**  
20:00etan Aginagan:  
Galarraga(Pagazpe)-Huitzi.

**Aurreko igandeko zenbaki saritua:**  
11242 (Iker Alduntzin).

**Egutegiko zenbaki saritua:**  
0196 (Ander Quina).

## Eskubaloitardak

### Apirilak 8 larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5A, 5B eta 5C. Lagunarteko triangularra.  
09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6A, 6B eta 6C. Lagunarteko triangularra.  
10:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A-Tolosa A  
12:00 Infantil neskak (lagunartekoa): Udarregi A-Udarregi B  
15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Txikixa Pulpo  
17:30 Jubenil neskak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-zehazteke  
19:30 Senior neskak, Zilarrezko Ohorezko Maila: Usurbil K.E.-Logroño Sporting La Rioja.

### Apirilak 9 igandea

■ 10:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: prestakuntza saioa.  
11:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: prestakuntza saioa.

## Selekzioarekin

### Apirilak 8 larunbata

■ 14:00 Infantil mutilen Gipuzkoako Selektzioaren entrenamendua, Donostiako Bidebieta Kiroldegian. Usurbil KE-tik deitua: Ekaitz Ibargoien.

### Apirilak 9 igandea

■ 16:00 Kadete mutilen Gipuzkoako Selektzioaren entrenamendua Orioko Karela Kiroldegian. Usurbil KE-tik deitua: Eneko Furundarena.

18:00 Jubenil mutilen Gipuzkoako Selektzioaren entrenamendua Orioko Karela Kiroldegian. Usurbil KE-tik deitua: Joseba Errazkin, Eneko Iribar, Julen Nazabal.

## Futbol partidak

### Apirilak 8, larunbata

■ 09:30 Infantil neskak: Usurbil B-Intxaurdi A  
■ 10:30 Infantil mutilak: Usurbil-Ostadar B  
■ 12:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Danena K.E. "A"

### Apirilak 9, igandea

■ 10:30 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Urki C.D. "B"

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**Patxi**  
bazkariak EGUNERO  
afariak. asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

Zuen  
publizitatea  
hemen  
© 943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Garbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. Tel. 630 490 844.

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Ilogailua eta fatxada berritua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalde, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukalde... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisua baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna.

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

**Alokairuan**

Pisua alokatzen da Kaxkoan: igogailua, bi gela, egongela, komuna eta sukaldearekin. Orientazio ona eta eguzkitsua. 690 817 903

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta sukalde. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

**MOTORRA**

**Salmenta, garajeak**

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarririk ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49

zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Galtzarainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup> karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup> koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Bateria edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaintzak**

Zerbitzari bat behar da kafeteri batean lan egiteko. Astean zehar egun bat eta asteburutan. Bidali kurrikulum-a posta kutxa 16 zenbakira 20170.

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera

altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818.

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro<sup>2</sup>. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nitzuke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutzak). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.



**Zorionak Irai!**  
Apirilaren 5ean 3 urte! Muxu handi bat etxekoan partez.



**Zorionak Olaia!**  
9 urte beteko dituzu apirilaren 9an. Ondo pasa eta muxu asko aita eta amaren partez.



**Zorionak Maddi!**  
Apirilaren 6an zure urtebetetzea izan da. Zorionak eta muxuak etxekoan partez.



**Zorionak Haizea!**  
Konturatzerako apirilaren 2a iritsi zaigu eta sei urte dagoeneko!! Segi orain arte bezain alai eta bixkor. Muxu handi bat etxekoan partez! Izugarri maite zaitugu, prexioxa!



**Zorionak Harriet!**  
Azkenean iritsi da hainbeste espero zenuen eguna! Apirilaren 7an zazpi urte! Muxu pila bat etxeko guztien partez!



**Zorionak Aratz!**  
Apirilaren 10ean, 4 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxuak etxekoan partez.

**Heriotzak**

**Jose Miguel Begiristain Azurmendi**  
73 urterekin hil zen martxoaren 30ean Aginagan



**OHARRA:** 2017ko apirilaren 28an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: apirilaren 24an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus



Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etzeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldari lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanetan. Berehalan leanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etzeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gazte, geriatrari laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etzeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketari lanak, tabernan arraskan aritzea... 688 642 835/ 697 887 581.

Etzeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etzeko zerbitzurako prest, baita garbiketari lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketari, jabetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan

edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezu: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketari lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, irailatik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzaletan lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak

edo umeak zaintzen, edo garbiketari lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketari lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Etxe etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material gutziarekin eta txakur ileapaintzaile titularekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan,

orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

#### BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funđa beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoan entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabili) eta enorktxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotzeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailearen amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurrentzako botika eta higenerako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txiniko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostia elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailearen 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenero ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korrees - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaui Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 06** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 07** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 08** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 09** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Astelehena 10** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteartea 11** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteazkena 12** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

## Apirilak 06 - apirilak 16

**Osteguna 13** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 14** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 15** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 16** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda apirila

## 07 ostirala

- **V. Dantza Eguna:** Dantza klasikoko erakustaldia. 19:30ean Sutegin.
- **V. Dantza Eguna:** Ion Markel Saez de Urabainen argazki erakusketa. 17:30-20:00 Sutegiko erakusketa aretoan.

## 08 larunbata

- **V. Dantza Eguna egun osoan** Egitaraua 13 orrialdean.
- **V. Dantza Eguna:** Ion Markel Saez de Urabainen argazki erakusketa. Egun osoz Sutegiko erakusketa aretoan.

## 09 igandea

- **Beintza-Ziga mendi irteera.** 07:30ean, Oiardo Kiroldegitik (izen-ematea, itxita).
- **Bizi Kalea.** 11:00-15:00. Mikel Laboa plazan. Antolatzailea: Hurbilago.
- **Bote luze desafioa Zubietan.** 12:00etan Zubietako erreboten plazan.

## Aisialdiak oporraldirik ez

Ikasleak oporretara doaz ostiral honetan, apirilaren 24ra arte. Tartean atsedenerako hamabostaldiaz gozatzeko aukera izango dute. Herri eragile desberdinek antolaturiko aisialdi ekimenean parte hartzeko aukera izango dute.

### Usurbil F.T.-ren kirol txokoak

- Iraupena: apirilak 18-22.
- Orduetgia: 09:30-12:30.
- Izen ematea: martxoaren 31n itxi zuten.
- Antolatzailea: Usurbil F.T.

### Txokoak Aginagan

- Iraupena: apirilak 10-12/18-21.
- Orduetgia: 09:00-13:00 (sarrera 10:00ak arte).
- Izen ematea: martxoaren 17an itxi zuten.
- Antolatzailea: Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak.

### Gaztelekuko ekintzak

- Apirilak 10, astelehena: 15:10 Autobus geltokitik, Zarautz-Getaria

### Gazte Akelarrerako bonoak

Ernai eta Aitzina gazte erakundeek "Gazte Akelarrea" antolatu dute apirilaren 13tik 16ra, Zornotzatik Igorrera. Gazte Akelarrerako bonoak salgai dituzue Aitzagan. Informazio gehiagorako: gazteakelarrea.info



Apirilaren 10ean Zarautz-Getaria ibilbidea osatuko dute Gaztelekukoak.

txangoa egitera.

Nori zuzendua: DBH3-4.

- Apirilak 20, osteguna: 15:00 Gaztelekutik Igeldora txangoa (Tximistarrira).

Nori zuzendua: DBH2.

- Apirilak 22, larunbata:

3. Konkis Eguna.

16:00 Gaztelekuan.

- Izen ematea: Gaztelekuan. Informazio gehiago ere, bertan eskuratu daiteke. Antolatzailea: Gaztelekua.

### Igandean, Bizi Kalea

Igande honetan goizeko 11:00etatik eguerdira arte Mikel Laboa plazan, gastronomia, poteak, mokaduak, azokak, zozketak... V. Dantza Eguna borobiltzeko, 13:00ean Tioteronen Semeak taldekoen "Fresh-Cool" kale ikuskizuna.

### Datozenak

#### Jexux Artzeren omenez Maiatzak 6, larunbata

- Mikel Laboa plazan, 19:30ean. Txalapartariak eta "Esku harriak, Oteizaren (h)aria" ikuskizuna.

Iparraldetik etorriko da Txalamandra txalapartari-bikotea (Paxkalin eta Mixu). Usurbilgo Alazne Begiristainek eta Eli Eizagirrek ere txalaparta joko dute.

MugMus Laborategia taldeak berri, "Esku harriak, Oteizaren (h)aria" ikuskizuna aurkeztuko du. Bertan parte hartuko dute bi dantzari, bi musikari eta Uxue Alberdi bertsolariak.

#### Maiatzak 6, larunbata

- Sutegiko auditorioan, 22:00etan. "Itzal zaunka" kontzertu irudikatua, Jexuxmai Lopetegi eta Noizbehinka bandarekin. Usurbilen jaiotako Antton Olariaga marrazkilaria omenaldia egingo zaio ekitaldi honetan.

#### Maiatzak 13, larunbata

- Sutegiko auditorioan, 22:00etan. Txalok aurkeztutako "Jainko basatia" antzezlan. Aktoreak: Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta eta Tessa Andonegi.



*Amonaren lapikoa dastatu nahi baduzu...*

**Gure Elkarteak**  
~ Santuenea ~

Eguneko platera 6€ - Eramateko aukera! Deitu: 686 55 41 45



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA



Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Erabakitze Eskubidea eta  
Maiatzaren 7ko Herri Galdeketa babesteko

## **APIRILAK 5, ASTEAZKENA**

19:00etan SUTEGIN.

*hitzaldia*

TOLOSALDEKO GALDEKETAREN INGURUKOAK.  
HERRITZARTU ETA NOAUA ELKARLANEAN!

## **APIRILAK 9, IGANDEA**

12:00etan ZUBIETAKO ERREBOTE PLAZAN.

*boteluze desafioa: Zubieta-Usurbil*

HERRITZARTU ETA ZUBIARTEAN ELKARLANEAN!

## **APIRILAK 21, OSTIRALA**

19:00etan SUTEGIN.

*hitzaldia*

ERABAKITZE ESKUBIDEA ALDERDI POLITIKOEN AHOTAN.

## **APIRILAK 29, LARUNBATA**

EGUN GUZTIKO JAIA KAXKOAN.

# *erabaki fest*

**GOIZEAN: MOSAIKO ERRALDOIA.**

**EGUERDIAN: ZIKIRO JANA FRONTOIAN.**

**TXARTELAK APIRILAK 23 ARTE SALGAI:**

*Artzabal, Irrati, Bordatxo, Aitzaga, Txiriboga eta  
Patri tabernetan.*

23 €. Ikasle eta langabetuak, 15€.

Haurrentzako paella: 8€.

# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 7ra  
**TXOTX GARAIA**

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei  
sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zuegandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubietza

# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • **943 55 69 81**



Kalezar 39, USURBIL sidrerria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

## SAGARDOTEGIA

# aginaga

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

**943 36 67 10**

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea